

GOI - ARGIA!

Zuok, lorrez josiok,
ez negar geiago:
Neskatxaren altzoan
Jesus lo bai dago,
eguzki galdatua
baiño ederrago.

Izar zuri batgandik
jaio yaku Eguzki:
ao gorri, begi nabar,
urrezko uts uledi,
gotzonak izandako
amesa dirudi.

Jainko-arnasa dogu
zerutik jatsia:
gaiñez, edurra baizen
samur ta guria;
barruz, labe antzeko
sutegi gorria.

Argi betikoaren
goi-erraiñu altsu:
gau zurbillaren ala
gura dau amildu;
argi egizu, otoi,
gure biotz-arru.

Aur txikia lo dago
altzo bigunean...
Argi zale txintak
zear-ega utsean,
karnabak txiru-liru

Nir dagi Eguzkiak
askaren ondoan...
Ta zerutar taldea
aren baranoan,
goi-kantak dabezala
leratsu aoan.

Ama-altzoan kuku
zagoz, gure Josu,
donoki ta lurrean
iñor baizen altsu;
arren zaitetz, Aur laztan,
gugaz errukitu.

BELÉN, BELENTXO!

I

Beien, Beien txo,
zein zuria dan
zure Semetxo!

Landa-zear yatortzu
artzaiñen leloa...
Txapar-arte aizea,
intziriz ostoa...

Zer ete diñotsoe
txoriak alkarri?
Sor-mindua ete da